

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

331 Zb.
www.getxo.eus

>> 2019ko Urtarrila

Nabarmen^{tzekoak}

- > “Oreka”, “Osito&Co”, “Hondale”, “Komunitatea Hartu” eta “GetxoEXP”, hautatuak 2018ko Wanted lehiaketan
- > Eusko Jaurlaritzak gazte ‘mileuristei’ alokairua ordaintzeko laguntzak emango dizkie
- > Izen-ematea Gazteak Lankidetzan programarako

Izen-ematea Gazteak Lankidetzan programarako

Datorren otsailaren 6ra arte egongo da zabalik 2019ko Euskadi-ko Gazteak Lankidetzan programan parte hartzeko izena emateko epea, Eusko Jaurlaritzak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak antolatuta, Euskadiko GKEen eta hegoaldeko herrietako enpresarekin.

Aurrekoetan bezala, 1989 eta 1997 urteen artean (biak barne) jaiotako 100 gazteak parte hartu ahal izango dute garapenerako ekintzetan Amerikako, Asiako eta Afrikako herrialdeetan. Esperientziaren iraupena hiru hilabetekoa izango da, ahal dela, uztailetik urrira arte.

Egutegia eta izen-emateak

Hautatze prozesuak, lehiaketa izaerarekin, hurrengo hiru fase ditu: alde zuzeneko hautaketa, hautaketa eta informazio eta orientazioa.

Martxoaren 1ean, alde zuzeneko hautatutako pertsonen zerrenda plazaratuko da; martxoaren 15, 16 eta 17n, Arabako Barriaren egingo da alde zuzeneko hautatutako pertsonen topaketa; hilaren 20an hautatutako lagunaren eta erreserban geratzen direnen zerrendak emango dira ezagutzera; eta hilaren 30an eta 31n, Barriaren ere, informazio eta orientazio fasea egingo da, hautatutako pertsonentzat. Urriaren 26an eta 27an ebaluazio-topaketa izango da.



Eskabideak bide presentziala erabili edo online egin daitezke (eskabidearen formulario elektronikoa <http://www.gazteukera.euskadi.eus> gazte atarian dago). Helbide berean, bete beharreko baldintzak, konpromisoak, eta abarrei buruzko informazioa eskaintzen da, aurreko deialdien esperientziez gain.

Eskabideak bide presentziala erabili edo online egin daitezke (eskabidearen formulario elektronikoa <http://www.gazteukera.euskadi.eus> gazte atarian dago). Helbide berean, bete beharreko baldintzak, konpromisoak, eta abarrei buruzko informazioa eskaintzen da, aurreko deialdien esperientziez gain.

BEKAK SARIAK

* 75 beka graduatu ondoko ikasketetarako Europan eta 45 Ipar Amerikako eta Asia-Pazifikoko unibertsitateetarako, La Caixaen *Obra Social* izenekoak deituta. 2010 eta 2019 urteen artean lortutako unibertsitate titulua eskatzen da, eta lehenengo kasuan B2 titulua edo herrialdeko baliokidea eta bigarrenaren *Proficiency* edo baliokidea. Informazio gehiago: <https://obrasociallacaixa.org>

* **Artistak Egoitza: Bilbaoeszena**, Bilboko Udalak deituta, 18 urtetik gorako artistentzat edo artista taldeentzat. Egoitza bakoitzak gehienez 25 eguneko iraupena izango du eta epealdi horretan modu trinkoan garatuko da, aurkeztu eta hautatutako proiektu artistikoan oinarrituta. Udala lokalak jarriko dira artista hautatuen eskura, euren proiektuak garatu ditzaten. Deialdi honen egoitza artistiko guztiak ahal dela 2019ko uztailean, abuztuan, irailean eta urriko lehenengo hamabostaldian egingo dira. Eskakera aurkezteko epea martxoaren 8ra arte egongo da zabalik. Informazio gehiago: Bilbaoeszena / Juan de Gardeazabal, 3 / 48004 Bilbo / Telefonoa: 94 433 49 95 eta 2018-12-03ko 232. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.

Romoko gaztekuaren programazioa

Urtarrila

Hilak 4, ostirala: ASANBLADA
Hilak 5, larunbata: TXAPELKETA: RAP
Hilak 9 eta 16, asteazkenak: TAILERRA: HORMAK MARGOTZEN BUKATU
Hilak 12, larunbata: TXAPELKETA: FUTBOLINA
Hilak 19, larunbata: IRTEERA: UK BERANGO
Hilak 25, ostirala: SEXOLOGIA
Hilak 26, larunbata: TXAPELKETA: MAHAI JOKOAK
Hilak 31, osteguna: MERENDOLA: URTEBETETZEAK

Algortako gaztekuaren programazioa

Urtarrila

Hilak 4, ostirala: ASANBLADA
Hilak 5, larunbata: IRTEERA: IZOTZ PISTA
Hilak 9, asteazkena: TALLERRA: AURPEGI MARRAZKETA
Hilak 11, ostirala: TAILERRA: SEXOLOGIA
Hilak 12, larunbata: MASTER CHEF: BASERRIKO PIZZA
Hilak 18, ostirala: MASTER CHEF: FILLOAS
Hilak 19, larunbata: ESKULANA: SLIME
Hilak 23, asteazkena: JOLASA: TWISTER ERRALDOIA
Hilak 25, ostirala, 29, astearte, eta 31, osteguna: ANIMALIENGANAKO TRATU TXARREI EZ!
Hilak 26, larunbata: TXAPELKETA: MARRAZKETA



“Oreka”, “Osito&Co”, “Hondale”, “Komunitatea Hartu” eta “GetxoEXP” hautatuak 2018ko Wanted lehiaketan

Gazteria Zerbitzuak eta Ekonomia Sustapenak bultzatzen duten Wanted Ideien Lehiaketaren 10. edizioan hautatutako proiektuak hurrengo izenekoak dira: *Oreka*, *Osito&Co*, *Hondale*, *Komunitatea Hartu* eta *GetxoEXP*.

Oreka Denis Ugaldere proiektua da eta elikagaiak berreskuratzeko B2B zerbitzua eskaintzen du. Plataforma baten bitartez elikagai-soberakinaren eragile emaileen eta irabazi-asmorik gabeko erakunde hartzaileen arteko harremana koordinatzen da. Hala, lehenengoei zerga-onurak bermatuko zaizkie, gizarte- eta ingurumen eraginarekin batera. Ekimen honek 7.500€ jasoko ditu.

Tamar Gigolashivilik sustatutako *Osito&Co* izeneko gastronomiaren eremuko berrikuntza-proiektua da. Hori gominola alkoholdunak sortzean datza, ondoren horiek merkaturatzeko asmotan. Ideia hori aurrera eramateko sustatzaileak 10.500€ jasoko ditu.

Hondale fikziozko film laburra da eta Getxoko udalerrira ikusgai uzten du. Horrez gain, urteak nola igarotzen diren lantzen du eta pertsona adinduei erreparatzen die. Sustatzailea Ainara Mentxaka Rodriguez da eta 7.385€ jasoko ditu.

Komunitatea Hartu izeneko proiektuak pertsona adinduen kontakizunari balioa eman nahi dio eta, aldi berean, gizar-

tearen transmisioa berreskuratu nahi du. Horretarako, belaunaldien arteko tailerrez eta argazki-erakusketaz baliatzen da. Egileak 5.115€-ko diru-laguntza jasoko du.

Azkenik, *GetxoEXP* Itxaso Beiretegi Hoyos eta Karla Crego Cordónen proiektu soziokulturala da eta gai desberdinen inguruan (dantza, kaligrafia, argazkia...) esperientziak nahiz erakusketak sortzen ditu. Proiektu hau kontratatua izango da Getxoarte ekimenaren barruan aurrera eramateko eta zenbatekoa 10.000€koa da. Eskudirutako sariaz gain, proiektu bakoitzak 10 orduko aholkularitza profesionala jasoko du, talde bakoitzak aukatzen duen gaiaren inguruan.

Eusko Jaurlaritzak gazte ‘mleuristei’ alokairua ordaintzeko laguntzak emango dizkie

Eusko Jaurlaritzak Gaztelagun programa onartu du, gutxien kobratzen duten gazteei alokairua ordaintzen laguntzeko. Hain zuzen ere, 22,5 milioi euroko zenbatekoarekin, 23 eta 35 urte bitarteko gazte “mleuristei” diru-laguntza emango die etxea alokatzeko, 2019-2022 urte bitartean. Diru-laguntzak dagoeneko eska daitezke eta sailak egingako aurreikuspenen arabera, 2019an 2.500 gazte eskatuko dute laguntza; 2020an, 4.500ek, eta 2021ean, 6.000k. Eusko Jaurlaritzak hilean 650-1.000€ kobratzen duten baina alokairu soziala eduki ezin dezaketen gazteen emantzipazioa erraztu nahi du.

Baldintzak eta tramiteak

Soldataren zenbatekoan eta adinean jarritako mugez gain, gehienez hiru urtez jaso ahal da laguntza. Eskatzaileek diru-sarreraren iturri erregularra izan behar dute eta, guztira, Diru-sarrerak bermatzeko Errenta kobratzeko uneko bakoitzean indarrean dauden mugak gainditu (urtean 7.734€) eta 15.000 eurokoak edo ba-



xuagoak izatea. Eskatzaileek EAEko herriren batean errolatuta egon beharko dute gutxienez urtebetean. Alokatutako etxebizitza ohiko bizileku beharko du izan, eta dagokion kontratua izan beharko du sinatuta, horren titularra ez den arren (etxebizitza partekatu daiteke, beraz).

Etxebizitzaren errentak ezin du 750€ baino handiagoa izan EAEko hiru hiriburuetako etxebizitzetan. Hiriburuon inguruan daude metropoli- eta 10.000 biztanle baino gehiagoko herrietan 650€ko

muga ezarri dute, eta 600€koa, gainerakoetan.

Banakako eskatzaileek jasotako laguntza hileko errentaren erdia izango da gehienez, eta % 60 etxebizitza partekatua bada. Jasotako laguntzak ez du inoiz Etxebizitzarako Laguntza Ekonomikoan ezarritako zenbatekoa gainditu (gaur egun, hilean 250€koa da).

Alokabide, Sozietate Publikoa arduratzen da laguntzen kudeaketaz. Informazioa: www.alokabide.euskadi.eus/gazte-lagun/eu